

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
0	0	112	1
positibo berri	hildako	positibo berri	hildako
2.313	0	8.924	76
positibo guztira*	hildako EAEn	positibo guztira	ospitalizatuta
*Hernanin 55 Astigarragan 20		Sendatuak EAEn: 17.394 Naf.: 4.600	

Konfinamendutik irteteko 2. fasean sartuko da Euskal Herria gaur, ekainaren 7ra arte

Arantxa Tapia sailburuak eta Maria Chivite Nafarroako lehendakariak baldintzak azaldu dituzte datozen bi asteetarako. Fase honetan oraindik ezin da lurralde desberdinetara mugitu.

URUMEA KORONABIRUSA

Euskal Herria osoa gaur sartuko da konfinamendutik irteteko bigarren fasean. COVID-19ak sorturiko osasun krisia eta gero. Euskal Autonomi Erkidegoa eta Nafarroako Foru Gobernuak larunbatean ezaguratu zituzten fase horretako arauak eta baldintzak. Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegiturako sailburuak eta Maria Chivite Nafarroako lehendakariak agerraldi banatan gaurtik ekainaren 7ra arte, izango diren baldintzak azaldu zituzten, pandemiaren bilakaera positiboari eutsiz gero.

Mugikortasuna eta ordu tarreak mugagabeak, bizi garen lurralde historikoan

Gaurtik, mugikortasunerako zeuden ordu-tarreak ezabatuko dira, eta mugagabeketa geratuko da, beti ere bizi garen lurralde historikoaren eremuan.

Kirol-jarduerari dagokionez, edozein ordutegitan egin ahal izango da jarduera fisikoa, 10:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 20:00etara bitarteko ordutegian izan ezik; ordutegi horiek 70 urtetik gorakoentzat eta kolektibo zaurgarrientzat izango dira. 70 urtetik gorakoak ere edozein ordutegitan irten daitezke kalera.

Argitu behar da pertsonen mugikortasuna mugagabea dela lurralde historiko bakoitzean. Era berean, lurralde historikoen arteko mugikortasunak mugagabe izaten jarraitzen du adineko senideei bisitak egiteko, arrazoi sozioekonomikoengatik eta lan-arrazoiengatik, baina

lurraldeen arteko mugikortasun mugari eusten zaio aisia arazoiengatik.

15 pertsona arteko bilerak etxeetan edo gune itxietan

15 pertsona arteko bilerak egin ahal izango dira (familian edo lagunartean) etxebizitza partikularretan, lokal pribatueta eta erabilera publikoko gune irekietan. Topaketa horiek osasun-agintariak gomendatutako distantzia eta prebentzio baldintzetan egin beharko dira.

Ostalaritza eta jatetxeetako barruko espazioak irekiko dira edukieraren %50era

Gaurtik aurrera, ostalaritza-establezimenduen jarduera berrabiaraziko da barruko espazioan, eta terrazen jarduerarekin jarraituko da. Bi kasuetan, gehieneko edukiera %50ekoa izango da, eta bi metroko tartea egongo da mahaien artean edo mahai multzoen artean. Establezimenduetan artatutako pertsonak eserita egon beharko dute beti.

400 metrotik gorako merkataritza guneen jarduerari eta irekierari berrekingo zaie, eta hurbileko merkataritza-jarduerarekin jarraituko da, gehienez ere % 40ko edukierarekin.

Elkarte gastronomikoak edukiera erdiarekin eta segurtasun neurriekin

Elkarte gastronomikoak ireki ahal izango dira, gehieneko %50eko edukierarekin eta bi metroko tartea egongo da mahaien artean edo mahai multzoen artean eta garbiketa eta desinfekzioan hostalaritzaren arautegi berbera bete beharko dute.



Ordutegietan mugarik gabe atera daiteke jendea.

Kulturako eta aisialdiko jarduerak hasiko dira edukiera murrizketekin

Kultura eta aisialdi-jarduera espazio itxietan berrezarriko da, museotan %50 arteko edukierarekin eta heren bateko edukierarekin, kultur etxe, antzoki eta zinematlan 50 pertsonako gehiengoarekin.

Espazio irekietan, gehieneko edukiera heren batekoa izango da, 400 pertsonako gehiengoarekin. Publikoa eserita, eta beti berrmatutako distantziak eta gainerako segurtasun-neurriak beteko dira.

Turismo aktiboa eta natura

Turismo aktibo eta naturalarekin berriro hasia baimenduko da, gehienez 20 pertsona arteko taldeetan.

Aurrez aurreko hezkuntza bueltatuko da

DBHko 4. maila edo Helduen Hezkuntzako baliokidea, Batxi-

lergoko lehen eta bigarren maila eta Lanbide Heziketako lehen eta bigarren maila guztietan aurrez aurreko irakaskuntza eta hezkuntza-jarduerari berrekingo, bai eta azterketak egitea ere posible izango da ikastetxeek horrela erabakitzen badute.

Era berean, ekaineko lehen astean, gainerako ziklo eta maietako irakasleak eta irakasle ez diren langileak berriro lanean hasia xedatzen da, ikastetxeetan hezkuntza-jarduera egiteko.

Era berean, honako hauei berrekingo arautzen da: Araubide Bereziko Irakaskuntzak (artistikoak, kirolekoak, hizkuntzeta-koak); Proba libreak DBH, Batxilergo eta LHko tituluak lortzeko; Enplegurako Lanbide Heziketako prestakuntza-jarduera presentziala eta lanekoak ez diren praktiken moduluak; Aurrez aurreko jarduerari Unitate Terapeutikoetan eta Hezkuntza Bereziko Zentroetan; Hezkuntza eta prestakuntza jarduerari presentziala

euskaltegietan, akademietan, eskoletan eta prestakuntza zentroetan eta antzekoetan, publiko zein pribatueta, besteak beste, hizkuntza, arte eta kirol esparruetan; Eta azterketa ofizialen deialdia, antolaketa eta ospakizuna (adibidez, HABE).

Nafarroan ahalbidetzen den baino «mugatuagoa»

Maria Chivite Foru Gobernuak lehendakariak iragarri zuenez, proposamen zehatz bat landu dute eta irizpide propioak ezarriko dituzte bigarren fasean, Espainiako Gobernuak ahalbidetzen duena baino «mugatuagoa».

Horrela, bada, Batxilergoko bigarren mailako ikasleek ikastetxera bueltatzeko aukera izango dute. Horrela nahiz izanez gero euren borondatez instituturara bueltatzeko eta unibertsitatean sartzeko probak prestatzeko aukera izango dute ekaineko lehen astean; eguneko egoitzak, museoak eta liburutegiak irekiko dituzte; eta kultur ekitaldiak eta kirol jarduerak antolatzea posible izango da, sarrera mugatuta.

Chivitek azaldu zuenez, adineko pertsonentzako eguneko zentroak irekiko dituzte, etxez etxeko laguntza martxan jarriko dute eta desgaitasunak dituzten laguntzako zentroetan bisitak egitea baimenduko dute.

Goizuetako Umore Ona, itxita

Nafarroan gazteen lokalak eta elkarte gastronomikoak ezingo dira ireki; bai, ordea, museoak eta liburutegiak ekaineko lehen astetik aurrera.

Aire zabalean egindako kultur ekitaldietan eta kirol jardueratan gehienez 200 pertsona bildu ahal izango dira.

Beraz, Umore Onak ezingo ditu ateak zabaltu. Erreketan eta igerilekuetan bainua hartzea arautuko dute. **K**

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru txarrekin
* Erresketak
* Lekualdatzeak
* Beilatokiak
* Eskelak, korroak...

Allianz

ASEGURUAK

- Bizitza
- Istripuak
- Ibilgailuak
- Etxeak
- Komertzioak
- Enpresak
- Arduraz zibila
- Finantz aseguruak
- Inbertsioak

agustin ezponda irizar agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25 HERNANI

943 557 509

ezkati

ileapaindegia

Iuneg. 4
Hernani
943 55 65 96
Hartu ordua

GAUR Giro egonkorra laino batzukin. Temperatura maximoak 20 °C ingurukoak izango dira. Iparraldeko haizea zakartu egingo da eguerditik aurrera. **Min.12° / Max.19°**

BIHAR Goizean behe-lainoak nagusituko dira, eta kantauri isurialdean zerua leku askotan estalita agertuko da. Alabaina, arratsalderako ostare politak irekiko dira. **Min.11° / Max.19°**

ARGITARATZAILA **DOBERA EUSKARA ELKARTEA** LAGUNTZAILEAK **Hernaniko Udala** **Argitarraga Udala** **Ereñotzako Auzo Urtia** **GOIZUETAKO UDALA** **ARANOKO UDALA**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroea Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

A1, A2, G1, G2, G3 eta G6 lineetan ordutegiak zabalduko dira gaurtik

Maiztasun gehiago berreskuratuko ditu Lurraldebusek COVID-19aren ondorioz ordutegiak murriztu eta gero.

ASTIGARRAGA-HERNANI GARRAIOA

COVID-19aren ondorioz Lurraldebusek autobus ordutegien maiztasuna asko eta asko berreskuratuko ditu Hernani, Astigarraga eta Ereñotzuko lineetan (A1, A2, G1, G2, G3 eta G6) eta lanegunetan. Honela, A1 eta A2 lineetan orduerdiroko eta

orduroko zerbitzu maiztasuna berreskuratzen dute, goizeko 06:30etatik aurrera A1en kasuan eta 06:15etatik aurrera A2ren kasuan, Hernanitik irtenda. A1en kasuan 05:45etan ere badago zerbitzua. Puntako orduetan maiztasuna orduerdirokoa da.

G1 edo Aietekoak orduerdiroko zerbitzua berreskura-

tzen du 07:15etatik aurrera eta 06:30etan ere badago lehenengo zerbitzu bat. G2 edo Andoaingoak ere orduerdiroko zerbitzua hasiko du ohiko orduetan, baina 15:15etatik aurrera maiztasuna murriztagoa izango da; orduro edo orduterdiro. G3 edo ospitalekoa ere ohiko orduetan ariko da zerbitzua eskaintzen. G6 edo Ereñotzukoak hiru bidai egingo ditu: 07:30etan, 13:45etan eta 17:40etan. <http://lurraldebus.eus/news/details/1023> webgunean ikusi daitezke ordutegiak. **K**

JASOTA BEZALA

gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaiak ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Topaketak 1. fasean

Indarrean dauden osasun eredu nagusietan uste dute gaixotasuna soilik borrokatu behar dela pertsonen osasunarentzat kaltegarriak diren sendagai toxikoen bitartez, eredu horiek ez baitute gaixotasuna osasunaren parteztat hartzen.

Botikagaien preskripzio eta kontsumo gehiegikeria heriotz masibo eta larrienen arrazoiaren artean agertzen da herrialde garatuetan (botikagaien %85 munduko populazioaren %17 biltzen duten herrialdeetako biztanleek kontsumitzen dute). Bitartean, munduko beste herrialde batzuetan, jende ugari hiltzen da oraindik ere sendagariak diren gaixotasunen eraginez.

Covid-19ari egotzitako heriotzen kopuru, zaharren populazioan batez ere, gertatu ahal izan dira botikagaien kontsumo gehiegikeriatatik, edo gertatu ahal izan dira, baita ere, Osa-

sunaren Mundu Erakundeak berak pandemialdi hasieran gomendatutako tratamenduen eraginez, Vicente de la Torre txiletar medikuak salatu duen bezala. Heriotz horien %60 inguru, 75-80 urte bitarteko gizon-emaumeenak izan dira, eta horietatik %70 zaharren egoitzetan bizi ziren.

Duela egun batzuk Eneko Landaburu medikuari entzun nion sukarrari eta sukarrari diogun beldurrari buruz mintzatzen. Sukarra eteten badugu -zioen- botikagaiak hartutata, birusari erantzuteko daukagun defentsa onenari egingo diogu eraso; eta, horrela, bai mozten ahal dugula sukarra, baina, beti ere, neumonia harrapatzeko edo eritasuna larriagotzeko arriskuak handituz.

Planetaren kutsadura, 5G antenak, elikadura txarra, bizi-moduen abiadura frenetikoak eta antzeko faktoreak, arazoa-

ren muinean daude. Ez dezagun ahaztu, pobrezia, gizartetik at gelditzea, askatasunik ez izatea, bakardadea... edo maitasuna partekatzeke ezintasuna, adibidez, gaixotasun larrien iturri ere badirela.

Nere lehen faseko topaketa hauetatik atera dudana ondorioa: pazienteen medikalizazioa (eta psikiatrizazioa) oinarri duen osasun eredu honekin jarraituz gero, osasunaren errentagarritasun ekonomikoaren ideian eraikitako ereduaren baitan, gainera, osasun publikoak ez du aurrera egiterik izango.

P.D. Youtuben bideo konferentziari hau ikusi nahi dutenentzat: *Sumando salud en tiempos del Covid19.*

Hizlariak: Dr.Karmelo Bizkarrara, Dr. Xabier Uriarte, Dr. Eneko Landaburu.

Patxi Xabier Urrestarazu Aizpurua 'Kabuki'

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

Izenematea, ostegunera arte

EREÑOTZU UDALEKUAK

Ereñotzuko udalekuan izena eman daiteke ostegunera arte. Matrikula 65 eurokoa izango da eta izena emateko, izena eta bi abizen, jaiotze-data eta harremanetarako telefono eta helbide elektronikoen berri eman behar da emailez, nagore-m@ereñotzu.eus helbide elektronikora bidalita. Osteguna, maiatzak 28, da izenemateko azken eguna Olak antolatutako uztaileko udaleku hauetan.

† JOSE LUIS GARCIA MARTINEZ

Herenegun hil zen, 74 urte zituela

- Goian Bego -

Haren emaztea: Pili Etxabe; seme-alabak: Nerea eta Jesus, Iñigo eta Bakartxo; bilobak: Ainhoa, Gorka eta Urko; anai-arrebak: Adolfo eta Mari Carmen; ezkon anai-arrebak: Isabel, Mari Carmen eta Ignacio, eta Ignacio Manuel; etxeko iloba: Idurre; gainerako ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko maiatzaren 25ean

JOSE LUIS GARCIA MARTINEZ

- Goian Bego -

Nahiz eta gure artetik urrutira joan, beti izango zaitugu gure bihotzean.

ZURE BILOBAK: AINHOA, GORKA ETA URKO

Hernanin, 2020ko maiatzaren 25ean

JOSE LUIS GARCIA MARTINEZ

Besarkada haundi bat familiari

IÑIGOREN HERNANIKO KOADRILA

Hernanin, 2020ko maiatzaren 25ean

† EUGENIO RODRIGUEZ CAMINO

Atzo hil zen, 95 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Bere emaztea: Pilar Azurmendi Imaz; seme-alabak: Belen eta Jokin, Amaia, Nekane eta Julen, Eugenio, Jone eta Juanjo; bilobak: Maider eta Gustavo, Amaia eta Gotzon, Naia eta Josu, Julen eta Amaia, eta Eukene; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela **BIHAR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko maiatzaren 25ean

Helbidea: Izpizua kalea 19-4D
OHARRA: Gorputza FUNERARIA VASCONGADA Hernaniko (Orkolaga kalea) Tanatorioan dago gaur 10:00ak arte.

PACO ELETA MATUTE

Herenegun hil zen, 88 urte zituela,

- Goian Bego -

Bere emaztea: Antxoni Ruiz Moñux; seme-alabak: Patxi eta Rosa, Candy eta Jordi; bilobak: Ekaitz eta Ainhoa, Ainhoa eta Aitor; arreba: Ana Mari; zainzaileak: Yanelys Dominguez eta Carolina Mayo; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak eskertzen dizue samin agurra bidali zenutenei.

Hernanin, 2020ko maiatzaren 25ean

SABINO ADARRAGA AYERDI

(Ikastetxeko irakaslea den Regina Adarragaren aita)

Bizitzen ari garen ezohiko egoera honetan, inoiz baino gehiago, Reginari gure agurrik beroena.

HERNANI BHI INSTITUTUKO IRAKASLE, IKASLE, GURASO ETA LANGILE EZ IRAKASLEAK

Hernanin, 2020ko maiatzaren 25ean

IRAGARKI MERKEAK

Irakasle tituluak lehen eta bigarren hezkuntzako klase partikularrek emateko prest. Online nahiz presentzialak. **Deitu: 943 12 41 28 (ez bagaude erantzungailuan utzi zure mezua)** **Iñigo Royo Masajlsta.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**